

OT-001-2016

Gaia: Bilbo Metropolitarrako Eremu Funtzionalaren LPParen berrikuspenaren hasierako onespena

Asunto: Aprobación Inicial de la Revisión del PTP del Área Funcional de Bilbao Metropolitano

Iradokizun Zenbakia: 48
Nork Aurkeztu Du: **Getxoko Udala**
Aurkezpen data: 2022/02/09

Sugerencia N°: 48
Presentada por: **Ayuntamiento de Getxo**
Fecha de presentación: 09/02/2022

IRADOKIZUNAREN LABURPENA

LPPren dokumentua aztertu ondoren, iradokizunaren arabera Getxoko HAPOren hasierako onespenerako azken bertsioa (egiteko prozesuan dagoena) funtsean bat dator LPP onartzeko dokumentuan Getxoko udalerrirako jasotako proposamenekin, honako hauei dagokienez izan ezik:

- Bizitegi-eskaintzaren eta jarduera ekonomikoen kuantifikazioa.
- Berangorekin muga egiten duen Mimenagako eremua plangintzak bateragarri egiteko eremuen artean ez sartzea.
- Uribe-Kostako Itsasertzeko Parke Lineala deritzonaren mugaketa zehatza.

1. Egoitza-eskaintza:

Idazten ari den HAPOk LAGen formula aplikatzen du, HAPOren justifikazio-memorian jasotako argudioaren arabera. Beraz, LPPren ondorengo bertsioetan kalkulua adierazitako zentzuan doitu beharko da, eta Getxorako CRmax-a 4.790 etxebizitzatan zehaztu.

2. Jarduera ekonomikoen eskaintza:

Izapidetzen ari den HAPOk LPParen zehaztapena betetzen du funtsean, Martiturriko lurzoru urbanizagarriaren sektorea, Ibarbengoako geltokiaren ondoan dagoena, mugatzen baitu. Hala ere, zehaztaperen hori HAPON mugatutako azalerara egokitu beharko da, hau da, 14 ha-ra.

RESUMEN DE LA SUGERENCIA

Tras analizar el documento del PTP, la sugerencia estima que la última versión para aprobación inicial del documento del PGOU de Getxo (en proceso de elaboración) coincide sustancialmente con las propuestas para el municipio de Getxo contenidas en el documento de aprobación del PTP, excepto:

- la cuantificación de la oferta residencial y de actividades económicas,
- el no haber incluido la zona de Mimenaga, lindante con Berango, entre los ámbitos de compatibilización de planeamientos,
- la delimitación concreta del denominado Parque Lineal Costero de Uribe-Kosta.

1. Oferta residencial:

El PGOU en curso de redacción aplica la fórmula de las DOT, de acuerdo con la argumentación contenida en la memoria justificativa del PGOU, por lo que en las versiones posteriores del PTP se deberá afinar el cálculo en el sentido señalado y concretar la CRmax para Getxo en 4.790 viviendas.

2. Oferta de actividades económicas:

El PGOU en tramitación cumple en lo sustancial la determinación del PTP, al delimitar el sector de suelo urbanizable de Martiturri, junto a la estación de Ibarbengoa. No obstante, deberá ajustarse esta determinación a la superficie delimitada en el PGOU, que asciende a 14 ha.





3. LPPan jasotako bateragarritasun-eremuen artean sartu behar da Mimenagako eremua, Berangorekin muga egiten duten jarduera ekonomikoetarako lurzorua optimizatzeko.

4. Uribe-Kostako Itsasertzeko Parke Linealari dagokionez, LPPn proposatutako ekipamendu-eredua gomendio gisa uler daiteke, eranskinean jasotako arau-zehaztapenen lotura-mailen koadroaren arabera. Beraz, Parke Lineal hau mugatzea nolabaiteko jarraitutasun funtzionala zaintzeko irizpide gisa ulertu behar da, eta jarraitutasun hori hainbat modutan lor daiteke, adibidez lurzoru urbanizaezinaren kalifikazio egokien bidez, eta ez espazio libreen sistema orokor bat mugatzeko derrigortasuntzat, hau da, HAPOri sailkapenei, kalifikazioei eta lortzeko moduari dagokienez lotuta dagoena.

5. Lurzoru urbanizaezinaren erabileren matrizea eta baldintzatzaile gainjarrien zerrenda LAGetan jasotakoak direla argitu beharko da.

6. Izapidetzen ari diren plangintza-tresnen araubide iragankorra argitzeko beharrezkoak diren xedapenekin osatu beharko da arau-testua.

3. Debe incluirse el área de Mimenaga entre los ámbitos de compatibilización contemplados en el PTP, para optimizar los suelos de actividades económicas limítrofes con Berango.

4. En cuanto al Parque Lineal Costero de Uribe-Kosta, el modelo de equipamientos propuesto en el PTP puede entenderse como una recomendación, a tenor del cuadro de grados de vinculación de sus determinaciones normativas contenido en su Anexo. Por tanto, la delimitación de este Parque Lineal debe entenderse como un criterio a la hora de preservar cierta continuidad funcional, que puede lograrse de diferentes maneras, como mediante calificaciones adecuadas del suelo no urbanizable, y no como un imperativo de delimitar un Sistema General de Espacios Libres vinculando al PGOU en cuanto a clasificaciones, calificaciones y forma de obtención.

5. Deberá aclararse que la matriz de usos del suelo no urbanizable y la lista de condicionantes superpuestos son las recogidas en las DOT.

6. El texto normativo, deberá complementarse con las disposiciones necesarias en orden a aclarar el régimen transitorio para los instrumentos de planeamiento en tramitación.

IRADOKIZUNARI EMANDAKO ERANTZUNA

1. LPPn agertzen diren kuantifikazio-taulen zifrak LAGak kalkulatzeko 2018-2026 aldirako metodoaren aplikazio argigarri bati dagozkie, Eustaten 2016ko datuak dituzten udalerri guztietarako orokortuta, LAGen Aplikazio Arauetako IV. eranskinean agertzen den bezala.

Hala ere, Lurralde Plan Partzialaren Memoriaren 6.4.2.4 atalean, udalerrien eta azpiarloen arabera kuantifikazioa zehatz-mehatz aztertzen da bertan, Getxori buruzko paragrafoan, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintzaren Zuzendaritzaren txosten bat aipatzen da, kalkulua zehazten duena LAGen 13.2.e.6.c artikuluan aurreikusitako kasuarekin eta Udalak emandako datuekin bat etorritik, eta Getxorako 4.776 etxebizitzako CRmax-a ezartzen du, iradokizunak

CONTESTACIÓN A LA SUGERENCIA

1. Las cifras de los cuadros de cuantificación que aparecen en el PTP responden a una aplicación ilustrativa del método de cálculo de las DOT para el periodo 2018-2026 generalizada para todos los municipios con datos de Eustat de 2016, tal como se ofrecen en el Anexo IV a las Normas de Aplicación de las DOT.

No obstante, en el apartado 6.4.2.4 de la Memoria del PTP, donde se analiza pormenorizadamente la cuantificación por municipios y subáreas, en el párrafo dedicado a Getxo, se cita un informe de la Dirección de Planificación Territorial del Gobierno Vasco que particulariza su cálculo, de acuerdo con el supuesto previsto en el artículo 13.2.e.6.c de las DOT y con los datos aportados por el Ayuntamiento, cifrando una CRmax para





adierazten dituen 4.790 etxebizitzetatik oso hurbil dagoena.

Getxoko HAPOren hasierako onespenerako dokumentuaren justifikazio-memoriak kopuru hori bera (4.790) justifikatzen du udalerraren gehieneko bizitegi-ahalmen gisa, baina bizitegi-eskaintza murriztagoa ezartzen du.

Azaldutakoagatik, LPPren hurrengo bertsioan, behin-behinean onartzearen ondoretarako, ez dira aldatuko koadro orokorretako zifrak, lehenengo paragrafoan deskribatutako IV. eranskinaren aplikazio argigarriari erantzuten baitiote. Aitzitik, aurreko datuak Memoriaren 6.4.2.4 ataleko informazio zehatzenean zehaztuko dira.

Kontuan izan behar da, LAGen 13. artikuluan eta IV. eranskinean eta LPPren arauetan bertan azaldutakoaren arabera, loteslea kalkulu-metodoa dela, ez koadroen zifra zehatzak, erreferentzia gisa balio baitute.

Getxo de 4.776 viviendas, muy próxima a las 4.790 que señala la sugerencia.

La Memoria justificativa del documento del PGOU para aprobación inicial de Getxo, justifica esa misma cifra (4.790) como capacidad residencial máxima del municipio, pero establece una oferta residencial más reducida.

Por lo expuesto, en la próxima versión del PTP para su aprobación provisional no se modificarán las cifras en los cuadros generales, ya que responden a la aplicación ilustrativa del Anexo IV descrita en el primer párrafo. En cambio, sí se detallarán los datos anteriores en la información más precisa del citado apartado 6.4.2.4 de la Memoria.

Hay que tener en cuenta que, de acuerdo con lo expuesto en el artículo 13 y en el Anexo IV de las DOT, así como en las propias Normas del PTP, lo que es vinculante es el método de cálculo, no las cifras concretas de los cuadros, que sirven de referencia.

2. Jarduera ekonomikoen eskaintza:

LPPren hurrengo bertsioan, agiria behin-behinean onartzeko, Getxoko HAPOk Martiturriko lurzoru urbanizagarriaren sektorean proposatutako azaleraren datua berrikusiko da, Ibarbengoa geltokiaren ondokoa. Horren azalera 14 ha da.

2. Oferta de actividades económicas:

En la siguiente versión del PTP para su aprobación provisional se revisará el dato de la superficie propuesta por el PGOU de Getxo en el sector de suelo urbanizable de Martiturri, junto a la estación de Ibarbengoa, que asciende a 14 ha.

3. LPPan jasotako bateragarritasun-eremuen artean sartuko da Mimenagako eremua, Berangoko udalerriarekin mugakide diren jarduera ekonomikoetarako lurzoruak optimizatzeko.

3. Se incluirá el área de Mimenaga entre los ámbitos de compatibilización contemplados en el PTP, para optimizar los suelos de actividades económicas limítrofes con el término municipal de Berango.

4. Uribe-Kostako Itsasertzeko Parke Linealari dagokionez, LPPren proposamenaren xedea ez da hirigintza-plangintzak baldintzatzea lurzoruak sailkatzeko, kalifikatzeko eta lortzeko moduari dagokienez. Parkearen helburua lortzeko, ez da nahitaezkoa denak udalerrietako Espazio Libreen Sistema Orokorretan sartuta egotea, edo tokiko sistemetan edo sistema orokorretan sartu behar izatea, edo publikoak izatea zati batean edo osorik.

4. En cuanto al Parque Lineal Costero de Uribe-Kosta, la propuesta del PTP no pretende condicionar a los planeamientos urbanísticos en cuanto a los tipos de clasificaciones, calificaciones y forma de obtención de los suelos. Para la consecución del objetivo del Parque no resulta obligatorio que estén todos incluidos en los Sistemas Generales de Espacios Libres de los municipios, o que tengan que formar parte de sistemas locales o generales, o que sean públicos en parte o en su totalidad.

Baina proposamena ez da gomendio hutsa; izan ere, asmoa da lurzoru horiek eraikuntza-erabilerarik gabe geratzeko, kostaldean zehar

Pero la propuesta no supone una mera recomendación, ya que sí se pretende que esos suelos queden libres de usos





jarraitutasun zuzkitzea eta eremu funtzionalaren azpiegitura berdearen parte izatea, zerbitzu ekosistemikoen hornikuntzarako, paisaiaren pertzepzio optimorako, klima-aldaketa arintzeko eta horretara a egokitzeko eta abarretarako, hori guztia herritarren osasunaren eta ongizatearen mesedetan.

edificatorios, que estén en continuidad a lo largo de la costa y que formen parte de la infraestructura verde del área funcional, a los efectos de suministro de servicios ecosistémicos, percepción óptima del paisaje, mitigación y adaptación al cambio climático, etc., todo ello en beneficio de la salud y el bienestar de la población.

5. Ingurune fisikoaren erabilera-matrizeak LAGetakoak izan behar du.

Baldintza gainjarriak LPPak definitzen ditu, eta antolamendu-kategoria bakoitzerako ezarritako erabilera-erregimena mugatzen edo baldintzatzen dute, LAGen Aplikazio Arauen II. eranskineko 2.b atalean azaldutakoaren arabera.

5. La matriz de usos del medio físico debe ser la misma que la de las DOT.

Los condicionantes superpuestos se definen por el PTP y limitan o condicionan el régimen de usos establecido para cada categoría de ordenación, de acuerdo con lo expuesto en el apartado 2.b del Anexo II a las Normas de Aplicación de las DOT.

6. LPPren Antolamenduko Arauen testua izapidetzen ari diren plangintza-tresnen araubide iragankorra argitzeko beharrezkoak diren xedapenekin osatuko da.

6. El texto de las Normas de Ordenación del PTP se complementará con las disposiciones necesarias en orden a aclarar el régimen transitorio para los instrumentos de planeamiento en tramitación.

LURRALDE GARAPENERAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA
LA DIRECCIÓN GENERAL DE DESARROLLO TERRITORIAL

